



Argazkiaren iturria: Berria

Larunbat honetan, Ekainak 6 hasiko da Kanadan, Emakumeen munduko futbol kopa. Txapelketak eta FIFA berak hainbat salaketa jaso ditu emakumeen eskubideak urratzeagatik. Jakina da emakumeek izugarrizko diskriminazioa jasaten dutela kirolean, eta futbolean are gehiago dela: hedabideetan presentzia baxua, baliabide ekonomiko gutxi, kirol jarduerak aurrera eramateko zailtasunak, kirol ekipamenduak erabiltzerakoan gizonak daukate lehentasuna... Guzti honi gehitu behar zaio munduko txapelketa honetan jokalarien aurka emango diren eskubide pertsonalen urraketak eta umilazioak, horien artean nabarmendu dezakegu: emakumeek, emakume direla frogatu beharko dutela.

Jokalari guztiek baieztatu beharko dute mediku informeen eta diagnostiko baten bitartez emakumeak direla. Froga hauek gaintzen ez badute ezin izango dute txapelketan parte hartu. Gainera jokalariren batean "susmoren bat egoten bada, adibidez emakume batek ez ohiko gorputz ezaugarriak dituelako" ikertua bat jarri daiteke bere kontra. Ikerketa horietan parte hartzerako uko egiten duten jokalariek zigortuak izango dira. Jokalariek eta erakunde feministek gogor salatu dute FIFAREN neurri hau, umiliagarria eta diskriminatzailea delako. Kritika ugari izan duen arren FIFAK neurriarekin aurrera jarraitzea erabaki du.



Journal of Human Rights and the Environment, Vol. 10, No. 1, 2019, pp. 1-10. doi:10.21832/jhr.v10n1.1